

Noaia!!



Lan ederra egin zuten
Herri Kirol Lehian



Ika, ika, ika
Hemen dator Korrika

USURBILGO HAUR ESKOLA

0-3 URTE BITARTEKO HAUR HEZKUNTZAKO
06/07/08. urtean jaio eta jaiko diren haurrak

- **NON:** Kalezarren • **ORDUTEGIA:** 7.30 -18.30
- **EGUTEGIA:** astelehenetik ostiralera. Iraila - Uztaila
- **INFORMAZIOA ETA IZENEMATEA:**
martxoaren 3tik apirilaren 30era, 9.00etik 13.30era



OSASUN
HEZIKETA



ELIKADURA
EKOLOGIKOA



JANTOKIA



ZERBITZU
PEDAGOGIKOA
GURASO ESKOLA



EKIMEN
BEREZIAK



© 943 374 061



FUNERARIA GONZALEZ

Tel: 943.36.21.63
608.16.77.92 eta 660.38.86.52



USURBILGO EHORZTETXEA

Zerbitzu azkarra eta etengabea 24H.
Beilatoki guztietan zerbitzuak.
Leku aldaketak, hilarriak, eskelak...
Ospital, zentru eta egoitzetan ere.
Seguru konpainia guztiak

Muna lurre Kalea 8

LOUNGE LAZARAGA MUTUA ZENTROA

- Egutegi gite bekatuen (1000)
- Solariak Berrak (1000) 35€
- FOTO-DEPIAZIOA
Bereizita eta Erakundeak
- Berrak 1.000.000 1.100
- Berrak 1.000.000 1.100
- Berrak 1.000.000 1.100
- Berrak 1.000.000 1.100



Irazu kalea, 12- beheko
© 943 362 887

Albisteak iruditan !!

Zikoinen bisita



Martxoaren 14an, arratsaldeko 18:00etan, bi zikoin agertu ziren Usurbilgo dorrearen inguruan. Ordu betez bueltaka ibili eta dorrearen gainean atsedean hartu ondoren, Zubietako bidea hartu zuten. Argazkiak Lourdes Ostolazak ateratakoak dira.

Noaua!!

NOAUA! Kultur Elkarte Bordaerri 3 Eguzkitzaldea - 20.170 Usurbil
943 36 03 21 - elkarte@noaua.com - www.noaua.com

Jendaurreko ordutegia: 10.00-14.00 / 16.00-19.00 astegunetan

Elkarteko lehendakaria: Ana Aizpurua, elkarte@noaua.com

Aldizkariako koordinatzailea: Imanol Ubeda, erredakzioa@noaua.com

Idazkaria: Alaitz Aizpurua, elkarte@noaua.com

Publizitatea: Intza Salsamendi, publikitatea@noaua.com

Kolaboratzaileak: Lontxo Zubiria, Ane Manzisidor, Maria Angeles Arruti, Ainhoa Salsamendi, Maria Jesus Urbiet, Nerea Korta, Aritz Gorriti, Jone Eizmendi, Ainara Arnaiz, Begoña Rekondo, Iñaki Agirresarobe, Ana Urdangarin, Eneko Harreguy, Iñaki Labaka, Koldo Huegun, Aloña Loidi, Imanol Goenaga, Agustin Esnaola, Alex Tello, Pako Agudo, Sara Lazkano, Nerea Aizpurua, Alazne Begiristain, Xabier Arregi, Edorta Agirre, Pello Aranburu, Ainara Uribe, Joseba Pellejero, Maider Makazaga, Aloña Pulido, Ainhoa Azpiroz, Aitor Landaluze, Josu Aranberri, Luis Aranalde, Nerea Zinkunegi, Idoia Torregarai.
Denborapasak: LUMA, O.E.

Erredakzio kontseilua: Imanol Ubeda, Aritz Gorriti, Agurtzane Solaberrieta, Joxe Luis Arrastoa, Alaitz Aizpurua.

Informatika: Topaguneko informatika zerbitzua.

Banaketa: Miren Azkonobieta, Txelo Vidal eta Kerman Errekondo.

Elektrikaria: Iñaki Salsamendi.

Tirada: 2.600 ale

Lege-Gordailua: SS-668-96 - ISSN: 1136-6818

Inprimategia: Antza. Zirkuitu Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.

IKA MIKA ATALEAN PARTE HARTU NAHI BADUZU, GOGOAN IZAN IDATZIAK GEHIENEZ 2.000 KARAKTERE IZANGO DITUELA. ALE BAKOITZEAN EZ DIRA BI IKA-MIKA BAINO GEHIAGO ARGITARATUKO. IKA-MIKA BAT BAINO GEHIAGO IRISTEN BADA, NOAUA!K IDATZI HORJETAKO BAT HURRENGO ALE BATEAN ARGITARATZEKO ESKUBIDEA IZANGO DU. IDATZIA ARGITARATZE-DATA BAINA ASTEBETE LEHENAGO EKARRI BEHAR DA.

NOAUA!k ez du bere gain hartzen IKA MIKA atalean eta, orohar, aldizkarian adierazirako esanen eta iritzien erantzunkizunik.

Aurkibidea

HIRI HONDAKINEN EZTABAIDA _____ 5. OR.

KRONISTAK KALEJIRAN _____ 6. OR.

HASTERA DOA JUBILATUEN ASTEA _____ 8. OR.

ASTEBURU HONETAN DATOR KORRIKA _____ 10. OR.

MARTXOAREN 29AN, HERRI BATZARRA _____ 12. OR.

HERRI KIROL LEHIA IKUSGARRIA _____ 14. OR.

GIPUZKOAKO TXAPELKETA ESKURA _____ 15. OR.



Euskal presoak



Euskal Herrira!



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza



IMANOL UBEDA

Nola aldatzen diren gauzak

Ez ditut manifestazioak maite. Ez ditut sekula gogoko izan. Gutxitan ikusiko nauzue horrelakoetan. Uste dut unibertsitatean nahikoetan ibili nintzela eta ordutik ez naiz osatu. Baina, esan beharrik ez da, zenbaitzuetan hori da herritarrok eskura dugun tresna bakarra. 18/98 auzia gutxi asko jarraitu dugunok, ikusi dugu zer nolako justiziak “babesten” gaituen. Horren aurrean, kalera ateratzea besterik ez da geratzen, bereziki orain, altruistaren “ofizioa” sumoan jarri nahi duten garai hauetan.

Baina nola aldatzen diren gauzak, kamarada! Manifestazioak gaitzesten zituzten horiek dira, ordea, kalera ateratzeko ohitura hartu dutenak. Azkena, pasa den larunbatean, Iruñean.

Orain azalduko ez ditudan arrazoiengatik, ezaguna dut Jose Luis Uriz, Atarrabiako zinegotzi sozialista. Iruñeko manifestazioaren bezperan, prentsarako prestatu zuen “Manifestazioa” izeneko gutuna partekatu nahi izan zuen hainbat pertsonekin, tartean nirekin. Eskuinetik datorren

ekaitzari aurre egiteko pazientzia, pedagogia eta irmotasuna behar dela zioen bere gutunean. Pasarte batean, literal-ki hau zioen: “iragana faltan botatzen dutenak, bakea nahi ez dutenak, elkarbizitzan sinesten ez dutenak, ezberdin pentsatzen dutenak gutxiesten dituzten horiek, ez dira pasako”.

Baina bitxia da, azalean eta mamian, zenbaitzuk plagiatzeko duten abilezia. Madril aldean, bereziki. 40 urteko gau ilunean agintean izan ziren horien oinordekoak dira orain askatasuna, demokrazia eta horrelako aldarrikapenak bere egin dituztenak. Frankismoaren azkenetan egin ziren manifestazioetara segurtasun indarrak bidaltzen zituzten horiek dira orain kaleaz jabetu direnak eta “Ez dira pasako” lema bere egin dutenak.

Manifestazio batzuen eta besteen artean, ordea, bada sekula aldatu ez den zerbait. Segurtasun indarren *makilkadak* batzuentzat bakarrik izan ohi dira. Hori ez, hori ez da sekula aldatzen...

Ainhoa Azpiroz - Aitor Landaluze - Luis Aranalde - Aritz Gorriti - Imanol Ubeda - Nerea Zinkunegi - Idoia Torregarai - Jose Piñas - Unai Agirre

AIKA MIKA ATALERAKO IDATZIAK GEHIENEZ 2.000 KARAKTERE IZANGO DITU. ALE BAKOITZEAN EZ DIRA BI IKA-MIKA BAINO GEHIAGO ARGITARATUKO. IKA-MIKA BAT BAINO GEHIAGO IRISTEN BADA, NOAUA!k IDATZI HORIETAKO BAT HURRENGO ALE BATEAN ARGITARATZEKO ESKUBIDEA IZANGO DU.

NOAUA!k ez du bere gain hartzen IKA MIKA atalean adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.

Hurrengo alea: martxoak 30.

Idatzia ekartzeko azken eguna: martxoak 26.

www.noaia.com

USURBILGO ATARIA



**Usurbil
Autoak, S.C.L.**
Zerbitzu Ofiziala

Zumartegi Poligonoa,
Aitzearra kalea, 1.
20170 USURBIL
Faxa: 943 36 62 92

943 36 10 79

LATAILLADE
ITURGINTZA

GASA
BEROKUNTZA
MANTENIMENDUA ETA
KLIMATIZAZIO INSTALAKUNTZAK

Ariztitxo 8, beheak - 943 363 548 - 609 888 021

Patri Jatetxea



K/nagusia 14. ☎ 943 362 725

Kale nagusia, 10
Telf: 943 37 33 48
943 37 09 13

Okindegia - Gozotegia

LABE-GOXO

“Alternatiba guztien gainera, errausketa sistema inposatu nahi dute”

Juanjo Olaizola eta Imanol Azpiroz Zubietako Herri Batzarreko kideek hala diote. Astelehenean prentsurrekoa eskaini zuten Zubietan. Herritarren parte-hartzea galerazten ari direla leporatu diete instituzioei. Ez hori bakarrik. Irregularitasun ugari eman direla salatu zuten Herri Batzarreko kideek. Horregatik guztiagatik, Luis Mari Oiarbide Garapen Iraunkorrerako diputatuaren eta Javier Ansorena Ingurumen Zerbitzuko buruaren dimisioa eskatu zuten.

Instituzioen helburua errauste plantatzea da. Gaintzeko kanpainak, konpostajea sustatzeara kasu, marketing kanpainak baino ez dira. Hala uste dute Zubietako Herri Batzarreko kideek. Juanjo Olaizola Zubietako Herri Batzarreko ordezkariak adierazi zuenez, “politikariak haiek ezarritako legeak zapaltzen dituzte behin eta berriz”. Datuak eta txosten teknikoak nahi bezala moldatzen dituztela eta, Lapatzeko konpostaje plantaren harira, kontratazioetan ere irregularitasunak eman direla adierazi zuen Olaizolak.

Instituzioak, entzungor

Herri mugimenduei eta Europako Parlamentuak hartutako erabakiei

esker, agintarien jarrera aldatzen joan dela diote Herri Batzarreko kideek. Izan ere, azken asteetan konpostatze bul-tzatze kanpaina egiten ari dira baina Herri Batzarreko kideen esanetan, propaganda baino ez: “gogora ekarri nahi dugu Zubietak lurraldea horretarako eskaini zuela 2004 urtean. Orain Aldundiak, guk aurkeztutako proiektua egin nahi du, baina bere erara”.

Honen harira, Foru Aldundiak eta Urola Erdiko mankomunitateak Azpeitian konpostatze planta pilotu bat jartzeko sinatutako akordioaren aurka jarritako errekurtoa gogora ekarri zuten. Legez, 30 egunetan erantzun behar bazuten ere, ez dutela erantzunik eman adierazi zuten Zubietako ordezkariak. Beraz, itun hark bertan behera gelditu beharko lukeela uste dute.

IMANOL AZPIROZ

“Oraingo zaborte-
giak 2009rako beteta egongo dira.
2009tik 2012ra zer egin
behar dute zaborrarekin?”

Donostiako alkatearen jarrera ere salatu zuen Imanol Azpirozek. Urtarrilaren 30eko udalbatza plenoan ez zioten partehartzen utzi. Galderak



LUIS MARI OIARBIDE DIPUTATUAREN
DIMISIOA ESKATU ZUTEN HERRI
BATZARREKO KIDEEK.

idatziz bidaltzeko eta erantzunak idatziz jasoko zituztela agindu zien Odon Elorzak. Baina erantzunak ez dira Zubietara iritsi.

Zaborte- giak beteta izango dira 2009. urtean

2009an zaborrekin zer gertatuko den ere jakin nahi dute: “diotenez, oraingo zaborte-
giak 2009rako beteta egongo dira. 2009tik 2012ra zaborrekin zer egin behar dute?”. Beste zaborte-
gi bat egingo ote duten ala zaborra porlan fabriketan erreko ote duten galdetu zuen Imanol Azpirozek. Añorgako Rezolak hiri hondakinak erretzeko baimena eskatu duela ekarri zuten gogora Zubietako Herri Batzarreko kideek.

IMANOL UBEDA

Errauste planta egiteko kontsorzioa sortu dute mankomunitateek

Bien bitartean, Gipuzkoako mankomunitate guztiek (Txingudikoa ez ezik) Hondakin Kontsorzioa osatzeko hitzarmena sinatu dute. Gipuzkoan sortzen den zaborra tratatzeko aurreikusita dauden azpiegitura berriak kudeatu eta ustiaturiko dituzten kontsorzio berri honek.

Besteak beste, konpostatze plantak egin eta kudeatzeaz, transferentzia-

estazioez, eta estazio horietatik azken tratamenduko instalazioetara hondakinak garraiatzeaz arduratuko da sortu berri den Kontsorzioa.

2009ko uztailerako Gipuzkoako zaborte-
gi guztiak itxita egotea aurreikusi du Foru Aldundiak. Zubietako errauste planta, aurrera eginez gero, 2012ra arte martxan jarriko ez denez, ordura arte zabor organikoarekin zer egin erabakitzea izango da Kontsorzioaren aurreneko erronka.



GIPUZKOAKO MANKOMUNITATEETAKO ORDEZKARIAK ETA GARAPEN IRAUNKORREKO DIPUTATUA, FORU ALDUNDIAREN ATARIAN.

TXOKOALDE

KOLDO HUEGUN

Euskaldunak Pierra Mentan



Gaurkoan gure auzoan herriko ura etxean izan ahal izateko zenbait baserrik bere poltsikutik ordaindu behar dutela bonbeoa bezelako gaia nuen boligrafo muturrean, baina aker on bat bezala mendira noa. Abestiak zioen bezala “egunkaritan gaude baina mapetan ez”, azken aldi hontan egunkariak majo betetzen ditugula, kolore guztietako “vascoak” baita estingituak ziruditen pizti urdinak ere.

Mendizaleok ere batzuetan tamalez gure barruarekin eta bestetan gure balentriarekin, herri txiki honen esistentzia munduari aldarrikatu ohi diogu.

Pierra Menta mendiko eskian munduko lasterketarik gogorrena, eguneko sufrimendua, 350 euroko inskripzioa, milaka kilometrotako desplazamendua, mundu osoko partaideak eta tartean hamalau euskaldun beren herria ordezkatzan...

Gaur egunkariak batetzen dituzten pizti urdin, politiko, federazioa eta gainontzekoen aldetik laguntzarik jaso gabe bueltatuko zarete, baina doakizue nire eta hemen geratu garenon gainontzeko partaideen besarkadarik beroena. Bejondeizuela!

KALEBERRI

IRATI PORTU

Zerua buru gainera



Denok dugu Asterix eta Obelix galia-rren istorioaren berri. Gizon ausart haiek denari aurre egiteko gai ziren, berdin zitzairen Erromako batailo handiena izan muturren aurrean edo basora esku hutsik basurde bila joatea. Gauza bakarrari zioten beldurra, gehienoi ironikoa iruditzen zitzaiguna: Zerua buru gainera erortzeari!

Lehengo asteen izugarritzko haizeteak izan ziren inguruan eta auzo askotan argi, telefono... gabe egon beharrean aurkitu dira. Txikizio bat baino gehiago eragin zituen haizeak. Ez zaio inori zerua buru gainera erori baina hor dago mehatxua; pentsa, herriko frontoiaren atzealdean goian dauden kristaletako batzuk ere erori ziren, eskerrak ez duen inor bertan harrapatu.

Orain dela gutxi lehortekak, negu bero hau, orain haize gogorra, elurra ere ba omen dator berriro... hau ez da normala. Ni pentsatzen hasia nago galiar hauek ez zirela batere tontoak eta bazutela zerbaiten susmoa.

KALEZAR

AINARA URIBE

Azkenean etxeraino bidea

Karmentxueneak bidea izango du: Belmonte kaletik, Juanjoxe enea zeharkatu eta bertaraino. Bai bai, 2007an hau esatea atzerakoia badirudi ere, orain artean etxe honek ez zuen inolako sarbiderik. Portaletik atera eta eskaileretan behe-runtz errepide nagusitik zehar joaten ziren herrira, edota eskaileretan gora Kalexartik, baina beti oinez. Hemendik aurrera, obrak bukatzean, ate aurreraino autoz bertaratzea posible izango dute eta garajeak aprobetxatu ahal izango dituzte. Tamalez, Karmentxuenean guraso izandakoak, haurren kotxekapotekin erosoago ibili ezin izana izango dute gogoan. Beraz, berandu bada ere disfrutatuz ezazue.



ATXEGALDE

AINARA BORDAGARAI

Udaberria iritsi ote al da?

Kaixo herritarrok! Udaberria iristear dago eta hasi gara iadanik armariotik udako arropa ateratzen baina... usteak erdi ustel, ikaragarritzko eguraldi txarra izan baitugu. Haize bolada bortitzak, euria, kazkabarra... Atxegaldetarrok ongi nabaritu dugu, argia behin baino gehiagotan joan baitzaigu gure etxeetan.

Hau guztiaren ondorioz, hainbat arropa auzoko kaleetan barrena dantzan ikusi ditugu. Zaborrontziak ere ez dira atzean gelditu egunsentiarekin batera beraien tokietatik kanpo aterata ikusi baititugu.

Udaberriarekin batera pentsatzen ariko zarete Aste Santuetako oporrak gainean ditugula eta batek baino gehiagok prestatuak edukiko ditu iadanik. Jai egun hauetan edozer egiteko aukera ederra izango dugu, bai eguraldi ona edo txarra egin, kontua jai egunak direla eta aprobetxatu beharra dugula, gabonetako oporrak aspaldi joan baitziren. Udaberriak ea laguntzen digun. Ia negu xeble haur alde batera uzten dugun behingoz eta udaberriari ongi etorria ematen diogun, bada garaia eta. Ongi izan!



SANTUENEA

ALEX TELLO

Eskaerak pilatzen



Auzo kronika batetik hamaika eskaera garrantzitsu egin daitezke:

(4.) Herrian hutsik dauden etxeekin (Udaletxearenak ez direnekin ere) zerbait egin. (41.) Santuenean eta Ingemar inguruan zebra-

bide eta errotonda egokiak jarri. (114.) Urtean zehar gazteen aisiarako kale-ekintzak (adin guztietarako balekoak, helduok gaztearen eta hauraren izpiritua jasoa daramagulako). (11.) Eta abar...

Alferrik orde. Halako eskakizunei gogoz aurre egiten ez bazaie... jai dugu. Lau-urtekoak igaro ahala, betiko auziak betirako dira. Gainera eta tamalez, urteekin gatazka berriak gertatzen direnez, premien zerrenda luzatuz doa. 'Konpondu gabeko betikoak' ahortzi ezean, lehentasunak zehaztu beharko dira, ze bestela, zer egin, otoi ala... amets?

(1.) Errauskailua ez ezartzeko eskaerari soluzioa emateko, zeinen erantzuna (edo erreakzio eraginkorra) beharko dugu? Steven Seagal-ena? (...) En Tierra Peligrosa 3 filma ekologista egitera etorriko balitz... baina, Seagal 'heroia' fikziozkoa da eta guk konponbide erreala orain, bertan behar dugu: Ongizatearen Gizartean.

URDAIAGA

ALAZNE BEGIRISTAIN

Haizea gogor



Orain bi aste, asko izan ginen haizearekin beldurtuta ibili ginenak, gaua pasa eta inguruetara begira, ea haizeak zer kalte egin ote zizkigun ikusteko beldurrez... Teilatua ondo mantendu zelako gustora batzuk, baina badira hori ere sufritu behar izan dutenak. San Estebango ermitan, jai batzordekook taberna jartzen dugun aldean, mugitu zituen teilak haizeak. Aurreko astean izan nintzen begiradatxo bat botatzen eta konponketa lanetan hasita zeuden, teila berri-berriak jartzen. Baina ez dakit zenbat iraungo duten, udaberrian sartzen hasiak ginela bazirudien ere, gogor hartu gaitu berriz haizeak eta euriak!

Honelako giroarekin zaila da uda aldera begira jartzea baina jai batzordekook hasi gara abuztuko festeei begira. Lehenengo bilerak egiten hasi gara festetako egitaraua prestatzeko asmotan eta ateak zabalik dituzue antolaketa parte hartu edo proposamenen bat egiteko gogoia duzuen guztiok. Beraz, animatu! Badakizue nortzuk garen eta lasai jo guregana!

AGINAGA

ANE MANZISIDOR

Korrika badator!

Berriro ere iritsi zait garaia Aginaga aldeko berri emateko zuei.

Gaurkoan korrika dela eta, Aginagan egingo den festatxoaren berri emango dizuet.



Martxoaren 24an iritsiko da Aginagara Korrikaren XV. edizioa, gaueko 21:30-22:00 aldera helduko da. Hau dela eta, Antxomolantxa auzo elkarteak, arratsaldeko 16:00etan hasi eta Korrika iritsi bitartean, jaia antolatu du, egitaraua ondorengoa izango delarik.

Arratsaldeko 16:00etan, film emanaldia izango dugu ikusgai ludotekan eta ikusgai izango dugun filma "Kutxidazu bidea Ixabel" izango da. Jarraian 18:00ak aldera, herritarren arteko herri kirolak izango ditugu. Hemendik, parte hartu nahi duen guztiei animatzeko esan nahi nieke.

Azkenik, festari amaiera emateko eta Korrikan indartsu ateratzeko, afari-merienda antolatu dute frontoian, hau trikiti soinuaz girotua izango delarik.

Besterik gabe, aginagar orori Korrikan parte hartzeko anima zaitzela esan nahi dizuet.

ZUBIETA

XABIER ARREGI

Zubietako herri-asanblada

Herri-asanblada izan genuen joan den martxoaren 17an, Herri-Batzarrak deituta. 50 bat pertsona bildu, eta hizketagai mamitsuak erabili ziren bertan. Erraustegiaren amesgaiztoa jorratu zen lehenbizi, eta Donostiako udalean hartutako erabakiari helegitea jartzeko asmoaren berri eman zen. Agidanean, soka luzea ekarriko du bide honek, instituzioen erabakiak lardaskeria handiz hartu baitira. Datozen asteetan izango da beste helegite batzuk jartzeko aukera.

Autobus zerbitzuaz ere hitz egin zen. Badirudi aukera batzuk jarri direla mahai gainean, baina guretzat egokiena Usurbil eta Lasarte lotuko dituen zerbitzua da, maiztasun handikoa eta geltoki askokoa. Tartean, Santuenea eta Urbil leudeke, joan-etorrietan mikrobusa jendez hornitzeko.

Azkenik, nobedade pozgarria: aurrerantzean Donostiako parteko zubietarrok Zubietan bertan izango dugu hauteskunde-mahaia, Añorga-Txikira joaten ibili gabe. Eskola txikian jarriko omen dute. Botoak Zubietan emango ditugu, ea noiz uzten diguten erabakiak ere bertan hartzen.



Adinekoen bizi kalitatea hobetzeko bideak aztertuko dira Jubilatuen Astean

Jubilatuen Astea ospatuko da hilaren 26tik apirilaren 1era arte. Gure Pakea Zahar Egoitzak antolatuta eta Usurbilgo Udalak eta Kutxak lagunduta, gizartean geroz eta pisu handiagoa duten adineko eta jubilatuei zuzendutako hitzaldiak izango dira Sutegin. Bizi kalitate hobea bultzatu eta zenbait ohitura osasuntsu barneratzeari buruzkoak. Arratsaldeko 18:00etan hasiko diren hitzaldi-solasaldi guztietarako sarrera doan izango da.

“Mens sana in corpore sano” esatera ondo dator kio Jubilatuen Astea programatu duten hitzaldi sortari. Adin tarte guztietan norbere burua zaintzea ez da soberan izaten; ezta jubilatuen direnek ere. Norbere gorputza eta burua osasuntsu izatearekin lotutako saiok izango dira Sutegin martxoaren 26tik apirilaren 1eko astean. Oro har, bizi ohitura onuragarriak bultzatu nahi dira.

Gorputzak, begiek, larruazalak, ileak, ahoak, hortzek edota oinek behar duten zainketa azaldu eta norbere autoestimua sendotzeki buruzko azalpenak eta ikasgaiak emango dira.

Barruko zainketak hizketagai

Pentsamenduaren alorrean, adin horretan baikorra izan eta oro har, jarrera positiboa izateko beharrezkoak izan ditzaketen tresnak zeintzuk diren ere jakinaraziko dira. Hartara, kezkek eta tristurak baztertu eta unean unekoa bizitzeko, iragana edo geroa albo batera utzita.

Alor bakoitzean adituak diren pertsonen eskainiko dituzte hitzaldiok. Horietako batean, adinekoen zuzendutako giza talde bereko boluntarioak biltzen dituen Nagusilan elkarte aurkeztuko dute.



HIRUGARREN ADINEKOENTZAT HITZALDI INTERESGARRIAK ANTOLATU DIRA. IRUDIAN, HERRIKO HIRUGARREN ADINEKO BATZUK, SANTUENEA ELKARTEAREN INAUGURAZIDAN.

Martxoaren 26tik aurrera, solasaldiak eta hildakoen omeneko meza

Martxoak 26, astelehena

“Gorputz-higienearen eta gorputza zaintzearen garrantzia”. Hizlaria: Izaskun Arrillaga.

Martxoak 27, asteartea

“Begiak, bizitzako lehioak”. Hizlaria: Olatz Arroita.

Martxoak 29, osteguna

“Pentsamendu positiboa, tristurari eta negatibismoari aurre egiteko”. Hizlaria: Eva Perez de Albeniz.

Martxoak 30, ostirala

“Nagusilaren aurkezpena”. Hizlaria: Gipuzkoako Nagusilaren presidentea.

Apirilak 1, igandea

11:00 Hildako jubilatuen omeneko Meza.

Oharra: hitzaldi denak Sutegin, 18:00etan. Sarrera: doan. Antolatzailea: Gure Pakea. Babesleak: Usurbilgo Udala, Kutxa.

Kalkos kopisteria
FOTOKOPIAK
zuri-beltza · koloretan
BANDERA
SALMENTA
PINTORE KALEA 7 · LASARTE-ORIA
943 376 424 · 943 376 155 (FAX) kalkos@copiateriakalkos.com

JOSETXO IKATZETA
Iturgintza
TEL: 943 36 20 26
687 95 12 25

**Zuen
publizitatea
hemen**
943 360 321
publizitatea@noaua.com

Jose Luis Elosua, Nagusilaneke kidea

“Talde bat osatu nahi genuke Usurbilen”

Nagusilaneke Gipuzkoako presidente Jose Luis Elosuak amaiera emango dio Jubilatuen Asteko hitzaldi sortari. Elkartea aurkeztu eta bertan parte hartzera deituko ditu usurbildarrak.

NOAUA! Zer da Nagusilan?

Jose Luis Elosua. Nagusilan adinekoen elkarte bat da. Gure helburua, bakardadea arintzea da. Erresidentzian dagoen jendea oso ondo zainduta dago. Baina egunak luze jotzen du. Hantxe elkarri begira egoten dira. Joan eta lagundu egiten ditugu. Haiekin egoten gara astean bizpahiru aldiz, beti ere erresidentziako arduradunen agindupean. Antzerki taldea, irakurketa taldea, txiste kontalariak, txapelketak... izaten ditugu.

Etxeetara ere joaten gara, bakarrik daudenengana. Kalera ateratzeko gauza direnei haien paseotxoak ematen laguntzen diegu.

N. Adinduekin nola jartzen zarete harremanetan?

J. L. E. Egin dezagun kontu orain Usurbilen taldea sortzen dela. Gu taldearekin harremanetan jarri eta haiengana joko genuke; boluntarioak eskainiz. Gure kontura ez baitugu ezer egiten. Dena Gizarte Zerbitzueta arduradunen bidez egiten dugu. Etxe batera joateko Gizarte Laguntzaileekin egon, pertsonaren berri izan, elkarrizketa bat eduki eta

senitartekoen baimena behar da. Handik aurrera bideratzen ditugu laguntzak.

N. Beste alderdian, boluntarioa. Zer baldintza bete behar ditu Nagusilan-en parte hartzeko?

J. L. E. Denek balio dute zerbaiteko, baita boluntario izateko ere. Ez dago baldintzarik ezta adin konkreturik ere. Tartean gazteak dauden arren, taldean gehienak adinekoak dira. Horrez gain, formazioa eskaintzen dugu. Hiru mailako ikastaroak ditugu; boluntaritzaren zer den, gaixotasunak nolakoak diren, adinekoen jarrerak ulertu, eta boluntarioak mantentzeko buruzkoak. Herri mailan ematen dira ikastaro horiek. Elkartasun sentimendua duen edonork lagundu dezake bakardadearen aurka egiteko.

N. Gizartea zahartzen ari da. Pisu handiagoa du adinekoen kolektibok. Beharrak eta hutsuneak ere gehitzen doaz?

J. L. E. Gure agintarien helburua bakoitza ahal den denbora gehien bere etxeetan egotea da. Horrek geroz eta boluntario behar handiagoa sortuko du. Etxean egotea gauza bat da, baina bakardade hori ezin da jasan. Horren aurkako hainbat egitasmo abian jarri dituzte erakundeak.

Hor dago etxetik etxera zerbitzua eta gehiago beharko dira. Kasu horretan, etxeko lanak egiten dituzte. Horrek beste tratamendu bat behar duela



NAGUSILANEKO PRESIDENTEAK AMAIERA EMANGO DIO JUBILATUEN ASTEARI.

garbi ikusten dugu. Boluntaritzak beti izango du tokia maitasuna eta laguntza emateko.

N. Hitzaldian xehetasun gehiago emango dituzue?

J. L. E. Euskaraz eta erdaraz. Ia, usurbildar batzuek animatzen diren. Talde bat osatu nahi genuke Usurbilen. Jada hemeretzi herrietan gaude.

Informazio gehiago: 943 465 581 (900 713 771 doako arreta zerbitzua eskuragai). E-posta: nagusilan@terra.es. Egoitza: Arrasate, 51-2 Esk (Donostia).

ARITZ GORRITI

Illepaindegia eta Solarium-a

Iñoli Lizarralde

Estetika Zentroa Merche Casaresen eskutik.

Zubiaurrenea, 5B ☎ 943 361 971

HALITATEKO EUSKAL OKELA

ALKORTA AUTOZERBITZUA

Frutak Barazkiak Etxeko produktuak Izoituak

Beheko kalea, 4
Telf: 943 36 57 42

Larunbat iluntzean iritsiko da Korrika

2 0:52, martxoak 24, larunbata. Atzerapen handirik ez bada, ordu horren bueltan iritsiko da "Heldu" lemapean Korrika 15 Araeta ingurura. Ordubeteko tartean, Zubietara, Santuenea, Kaxkoa eta Aginaga igaroko ditu. Gaueko 22:00ak aldera lekukoa oriotarren esku geratuko da.

Karidadeko Benta taldearen eta Mikel Urdangarin eta Kirmen Uriberen ikuskizunaz gozatzeko parada izan da azken asteetan. Etumeta-AEK euskaltegiak Korrika Kulturalaren barne antolatutako ekitaldiak izan dira. Orain, kultur birak Korrika 15-i lekukoa pasako dio. "Heldu" lemapean ostegun honetan, martxoak 22, lehen aldiz Karrantzatik abiatzekoa zen. Larunbat honetan, martxoak 24, 21:00ak aldera iritsiko da Usurbila.

Aurtengoan bildutako laguntza gau eskoletara bideratu nahi dute. Apirilaren 1ean amaituko da Iruñean, 2.376 kilometro egin ostean.

Zubietatik Santuenera

Oria ibaia igarota hartuko dute lekukoa zubietarrek. Zubietatik Santuenera; handik Ingemar pasata, Bizkarrera; Aliproxetik gora Kale Zaharrera; Haur Eskolatik Bordatxoko errotondara; hortik behera, berriz Aliproxera. Kale Nagusia alde alde pasata, N-634 errepidean sartuko da Korrika 15. Aginaga zeharkatuko du ahalik eta lekua oriotarrei pasa arte.

Gogoratu ordutegiok: 20:52 Araetan, 21:11 Santuenean, 21:18 Kaxkoan, 21:31 N-634 Atxegaldan, 21:44 Aginagan. Guztira, martxoaren 22an Karrantzan hasi eta apirilaren 1ean Iruñean amaituko den lasterkaldiko hamar kilometro.



LARUNBATEAN, GAUEKO 21:00AK INGURUAN IRITSIKO DA KORRIKA 15 ZUBIETARA.

Udarregin, Haur Eskolan eta Aginagako ludotekan bezperan hasiko da Korrika

Ostiral honetan, hilak 23, Udarregiko ikasle talde bana aterako da 15:00etan Zubietatik eta 15:15etan Iborla baserritik eta San Estebandik. Frontoirako ibilbidea osatuko dute. Denak pilotalekuan elkartzen direnean, Korrikako abestia kantatuko dute. Haur Hezkuntza, Lehen eta Bigarren Hezkuntzako ikasleek parte hartuko dute.

Baita Haur Eskolako bi eta hiru urte artekoek ere. Gainera, guraso eta langileen artean Korrika 15-eko kilometro erdi bat erosi dute Kale Zaharren. Petoak jantzita Eguneko Zentroa ere bisitatuko dute.

Zubietako eskolan auto bati bozgorailuak jarri eta inguruetan osatuko dute Korrika Txikia. Asteazkenean, dortsalak prestatu eta abestia entsaiatzen aritu ostean.



OSTIRAL ARRATSALDEAN KALERA ATERAKO DIRA UDARREGIKO IKASLEAK.

Aginagan egitarau berezia

Martxoaren 24an, Aginagako Antxomolantxa elkarteak egitarau berezia prestatu du; 16:00tan "Kutxidazu bidea Ixabel" filmaren emanaldia, 18:00tan herri kirol saioa, 19:00tan afari merienda eta erromeria (txartelak bertan eskuragai), eta azkenik, 21:30tan Korrikan parte hartzera irtengo dira.

Zubietatik iritsiko da lasterketaren lekukoa

Korrika 15-eko hamar kilometroek Zubietako Hipodromo inguruak Aginaga eta Orioren arteko mugarekin lotuko dute. Eremu honetako antolaketa lanez Usurbilgo taldea arduratu da. Etumeta-AEK euskaltegiko irakasle eta antolatzailerako batek, Rosa Zubeldiak ekimenari buruzko xehetasun gehiago ditu.

Hipodromoko zubiraino lasartearrek eramango dute lekukoa. Zubia igarota aldaketa izango da. Lasartearrek zubietarrei pasako diete lekukoa. Hortik aurrera, Karrantza eta Iruñea lotuko dituen Korrika 15-eko ibilbideko hamar kilometro inguru hauetatik igaroko dira. Eremu hori kudeatzeaz Usurbilgo taldea arduratu da. Antolaketa lanez gogor lan egitea eskatzen badute ere, “Korrika bera une hunkigarria izan ohi da”, adierazi du Rosa Zubeldiak.

Jada, lotu beharrekoa prest dute antolatzailerak. Alde horretatik, Usurbilen Euskal Herriko beste hainbat lekutan ez bezala, pauso bat emana dute. “Korrikak badu bere sona. Hiru bat hilabete lehenago jendea gogoratzen da Korrika badatorrela”, adierazi du Zubeldiak. Erreferentziako hitzordua bilakatu ohi da euskararen aldeko lasterkaldia herritar askorentzat.

Euskaltegian ere giro berezia bizi dute. Klase ordu batzuk gai honi zuzenduta baitaude. “Ikasmateriale prestatzen da bai guretzako, baita ikasleentzako ere”, adierazi du Zubeldiak.

Garraiolariak Korrikan

Hilaren 22an hasten den Korrika 15 Usurbilera ailegatzeko lasterraldiaren bigarren eguna izango da. “Horregatik, ez dugu atzerapen handiegirik espero”, adierazi du Rosak. Beti ere lekukoa daramanak eta atzetik datozen korrikalarien abailaren arabera, lehenago edo geroago iritsiko da Korrika 15. Edizio honetan, euskal emakumeak omendu nahi ditu, batez ere hizkuntza bizirik iraunarazi eta egin duten transmisio lanagatik. Emakume horiek, zahar eta gazte, “denentzat dago tokia”, adierazi



DUELA BI URTE, ORDU TXIKITAN IRITSI ZEN KORRIKA. KALEZARREN ATERTAKO IRUDIAN, KORRIKAREN LEKUKOA NESKA TXIKI BATEN ESKUETAN.

du Zubeldiak.

Tarte honetako kilometroak erosi dituztenen artean, bada bitxikeriarik ere. Ohiko herriko elkarte eta taldeek haien kilometroa erosi ohi dute. Aurtengoan, ordea, zerrenda horri garraiolari talde bat gehitu zaio; HIRU sindikatuak Usurbil eta Aginaga arteko kilometroetako bat erosi du. Larunbat honetan, lasterkariak taldea bertara iristean garraiolariarekin topo egingo dute. “Kamioi eta guzti ateratzekoak omen dira”, adierazi du euskaltegiko irakasleak.

Aspaldiko partez, asteburu iluntzean

Duela bi urte, Korrika 14 ordu txikietan ailegatu zen Usurbila. Orduan ere ibilbide bera egitekoa zen, baina asteazken goizaldeko seiak pasatxotan. 2003an ere antzeko ordutegia izan zuten, baina orduko hartan igande goizaldean ailegatu ziren korrikalariak eta lekukoa.

Aurtengoan, ordea, zeharo aldatu da Korrikaren hitzordua; egun eta ordu ezberdinean ailegatuko baita. Aspaldian izan ez den ordu eta egunik egokienean dator Korrika 15; askorentzat afalordua izan daitekeen unea. “Afaldu baino lehen atera dadila jendea”, gomendatu du Zubeldiak. Ateri, euririk egin gabe eustea litzateke korrika aritzeko egin

dezakeen girorik onena. Eguraldi kontuetan adituak direnez diotenez, ostegunean amaitzekoa da aste hasiera honetan izandako negu giroko azken ekaitza. Hortik aurrera, eta asteburuari begira, eguraldiak hobera egingo duela iragarri dute.

Erabilerari gehiago heldu behar

Duela aste gutxi aurkeztu ziren euskararen kale neurketari buruzko emaitzak. Ondorio nagusien artean, azpimarragarria zen neurtutako herritar kopuruaren artean duela urte batzuk baino gehiago direla euskaraz komunikatzeko gai direnak.

Aldiz, euskaraz hitz egiteko ohitura, ez da proportzio berean hazi. Norbere konpromisotik hasi beharra dagoela azpimarratzen du euskaltegiko irakasleak. “Deialdia egingo nioke dakienari, ederki dakienari, erabiltzeko aitzakiarik ez duenari, erabil dezan. Euskara erabiltzeko da, ez maitatzeko. Komunikazio tresna bat da eta tresna guztiak bezala, erabiltzeko dago”, gogoratu du Zubeldiak. Korrika 15-eko aldarrietako bat izan ohi da; euskarari heltzea alegia. Hortik, besteak beste, aurtengo lema; “Heldu”.

Herri batzarrera hurbiltzeko deia egin du Ezker Abertzaleak

